"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA | *Pamplona - Agosto 1966* | DIRECTOR: J. E. URANGA

Saraitzu-ko Ibarra (Salazar)

Zaraitzuko Baleak amalau erri ditu: Izize (Iciz), Igarri (Igal), Itzalle (Izal). Gortza (Güesa), Ubelzieta (Ibilcieta), Sartze (Sarries), Galoze (Gallués), Uskartze (Uscarrés), Itzalzu, Orontze, Ezkaroze, Eaurta (Jaurrieta), Espartza, eta Otsagabia.

Zaraitzu izen berdiñako Ibaiak Ibarreko iparaldetik egoalderaño iragaitzen du. Eaurtan aldamentik sortzen den erreka, edo ibai txiki baten urak arturik.

Bale onek Nafarroko lurraldeen artean bere nortasuna badu, Baztan edo Erronkariko Baleak bezelakoak. Ibarreko Batzar Nagusiak bere aintziñeko eskubide bereziak eta oso bakanazko doaik ere baditu.

Bale eder onen Irinagusia Otsagabia da, Zaraitzuko errietan aundiena dena.

Otsagabiko Elizak amasei mendeko Erretablo balio aundiko bat du greco-erromano lankeraz egiña, eta zillarrezko egikeraz landua.

Otsagabiako Begiratzaile eta Zaindaria Muskildako Ama Birgiña da, eta erritik urbil den mendi batean kokatu Elizatxo batean dagona. Amairu mendeko iduria da, erromanozko tankeraz egiña.

Zaraitzuko mendirik goiena Orhy mendia da, bi milla metrotik gorakoa; mendi au lerden, lirain eta txairoa da, gure anaia den Frantziako Zuberoko euskal Lurralderen mugaldean dago. Abodiko Mendimalloa Bale ontan ere da.

Fagadoi ederrak, ariztoi edatsuak, izadi zabalak, larrak, egundoko lerdoiak, Bale ontan badaude, eta Iratiko Oian (Baso) izugarriak ere Zaraitzuko Bale zati bat bete ta nausitzen du.

Zaraitzukoak, izatez eta izenez, nafar-menditarrak dira, baño gauza negargarria da emen gertatzen dena: Zaraitzuko uskara goxoa aintziñeko mintzaera maitagarria, mendez-mendeko eleerranera berezia, kenka txarrean, estualdi gogorrean ,il zorian dago. Zaraitzukoak, zuen uskara utziko duzue iltzera?, botazo duzue il urrengo alde batera?

Nafarroko Diputazioak, eta bere izenean "Principe de Viana" Ikasgoko "Euskeraren aldeko Sailla"-k datorren urtean. Zaraitzuko Ibarresunezko laguntza nai dio eman ko uskara berarizko denari maita-Zaraitzuko andra-gizonak, jator eta zintzoki bere uskararen aldeko lan ontan lagunduko gaituztela uste zuzenian gaude.

Oraindik Eaurtan, Otsagabin, Eskarotzen, Espartzan, Itzalzun eta Orontzen Zaraitzuko uskaldunak bizi dira, euskeraz mintzatzen, Nafarroko izkuntzaz xardokitzen, dakitenak. Erri batean berrogei urtetik gorakoak euskaldunak izanen dira, beste erri batean damurik irurogei urtetik pasatziak euskeraz elerraiten gai edo gauza izanko dira.

Ia bada denen artean gure euskara gaixoa ezduguniltzera uzten, eta Muskildako Ama Birgiñak lagun gaitzala gure Euskera xaarraren aldeko lan ontan.

Fotos: Ventura Vázquez

Mundu zabalean

Vietnam aldean betiko koropiloak. An biltzen ari diran gerlatresneriak ekar lezake Txinak agerian sudurrak sartu behar izatea.

Ipar-Ameriketan beltzen ixtillua sekula baño ilunago dago.

Wilson, Inglaterrako lendakaria Hasinton'en izana da. Inglesen dirua pipiak jo ta dago. Laguntzaren billa joana zateken Wilson jauna. Besterik ez bada, D.D.T. erosiko du. Desinfetatzeko ona da.

NATO gaxoa ere zalantzan dabil. Sarraldeko Europa zaharrak USA'rekin egina duen elkargoa austen asia da. Frantziak sartu dio ziria. Batzuk diotenez, istillu au Alemaniaren mesedetan izan laike, atomika gauzetan beintzat. 1949'an sortu zen eta ikusiko noiz arte iraunen duen.

Gromyko, Errusiakoak, Japon aldera jo du oraikoan. Lau aldiz elkarren kontra gerran ibiliak dira, gure gizaldian, Errusia eta Japón. Sal-eros'mentan jokabide berriak sortu nahi dituztela dirudi.

Ehun millon arima baditu gaur Japonek. Lurraren arora, estuenetarik bizi dira. Aurreratuz dijoaz, Amerikanoei esker. Bai ango agintaritzan, nola diru kontuan eta jendetasunezko artu-emanetan, ogeitameka eskutik egiten diete dolarra dela ta. Len ere diruak dantzazten zuen artza!

Industria kontuan aurrera ta aurrera joana da Japon. Mundu guzian buru dira itsas-untzi egiten. Nekazaritzan ere asko egiten dute, naiz lur txikitxotan apurtua duten beren itsas arteko liorra. Eta bizi nahi!

Las actuales preocupaciones siguen centradas en la guerra del Vietnam donde la creciente acumulación de medios militares puede poner en peligro la neutralidad de China.

También se ha recrudecido en USA el problema de los negros.

El Presidente del Consejo Británico Sr. Wilson visita al Presidente americano. Busca apoyo en el orden financiero ya que Inglaterra está sufriendo también una grave crisis en este sentido.

También aparecen dificultades en las relaciones internas de la NATO (Organización militar de las naciones europeas y de los Estados Unidos para la mutua defensa, surgida del Tratado firmado en Washington en 1949), dificultades que al parecer favorecerán a Alemania que quizá pueda tener acceso a la política nuclear.

El embajador ruso Gromyko visita el Japón ocn el fin de establecer nuevas relaciones de tipo comercial. Como es sabido Rusia y Japón han tenido cuatro guerras en lo que va de siglo. Japón tiene actualmente cerca de 100 millones de habitantes con una de las densidades más altas del mundo. Sigue siendo una monarquía muy evolucionada por la influencia americana ya que los Estados Unidos ejercen todavía una gran supervisión sobre todas las manifestaciones políticas, económicas y sociales de la vida del Japón. La industria japonesa ha vuelto a crecer extraordinariamente y en el momento actual es el primer país constructor de barcos del mundo. El Japón tiene una agricultura muy intensa y la propiedad está dividida en pequeñas parcelas.

Españako berriak

Bilbo'ko Ikusketa Nagusiak ideki ditu bere atariak. Kanpoko tresnak ere sartu dituzte aurten. Lenbiziko egunean izan dira betiko itzaldiak. An esanetarik ikusten da, Gobernuak, diru-aurreratze kontuan eskua ideki nahi duela. Bestalde, bakoitzak geroari begiratuz dirua gordetzea, danondako komeni omen da. Teila azpian sartuta ere?

Ongi artua izan da, dirudienez, abere-gorrien azitzen laguntzako asmatúa den "Egintza Alkartua", (Acción Concertada, erderaz). Mila ta zortzireun eskabide artu dira. Esan nahi da 130.000 buru sartu laizkela eginbide berri ontan. Milla ta geyago millon peseta beharko dira aurrera ateratzeko. Naparroko mendialdean ere ez ote laike beste leku batzutan egin dutena, amabots txal (beikume) azitzeko moduko borderi laguntza ori eman? Oraiko legez, gutxienez ogeitamar aretxe (txekor) azi dezazketeneri ematen diete bakarrik.

Gero ta porlan geyago. Lengo urtean baño eunendako ogeitabost gorago jotzen dute aurten egina. Neurri berean jaso da kanpotik eldu zaizkigunen jendeketa.

Bi milla millon peseta da Gobernuak ikasketako berexi duena. Agintarien eginbiderik oberenetako bat auxe da.

Robledon'n (Madrid) "Orbiter" delakoak bialdutako lenengo illargiaren irudiak biltzen asiak dira.

Se inaugura la Feria de Bilbao y del discurso del Sr. Ministro de Hacienda se deduce que va a vigorizarse el crédito oficial y que va a estimularse el ahorro nacional base de todo desarrollo.

Al parecer va teniendo éxito la Acción Concertada para explotación del ganado vacuno que ya afecta a 1.800 expedientes con 130 mil cabezas y 1.350 millones de pesetas en créditos. Será interesante que se amplíe a las comarcas norteñas de Navarra la nueva disposición que afecta a las provinrias cantábricas y que reduce a 15 el anterior número de 30 terneros como mínimo.

La producción de cemento español aumentó en un 25% en relación con el pasado año. Este mismo porcentaje es el que señala este año el aumento del turismo.

El Estado dedica 2.200 millones de pesetas para becas y apoyos a la enseñanza. Esta es una de las actuaciones más importantes de nuestro Gobierno.

Se han recibido en la Estación de Robledo (Madrid) las primeras fotografías de la luna enviadas por el "Orbiter".

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

GIZON AUNDI BAT



Unamunok zion Akiles gizon aundiak izan dituela Euskalerriak; oien goratzale Homero, idazleak, dituela eskas. Egia esan, bere izen ona aurrera ateratzeko Akiles zaharrak zer egingo luken eztakit nik, gure artean. Nik dakitena gizon aundien ispilluak baditugula orai berean. Aita Felipe, baten izena; izatez Murietakoa.

Ixilian egin ditu bere gauzak. Ixilian ikasi zuen euskera, ots aundiko askok egiten ez dutena. Ixilian idatzia zuen euskaldun berriendako gramatika; eta argitaratzeko biderik eman ez duen ixiltasunean, izan ere. Ixilian bere Euskalerri maitearen aldeko otoitza; eta ixiltasunik aundienean bere eritasun latza... eta eriotza.

Alare, bazituen ixiltzen ahal etzituen gauzak: eliza betetzen zuen musika —Aralar gallurreko musikaria—; etzen ixilkako gauza "Umeen Deia"; etzen ixilduko euskera aipatzen zalarik edo euskaldun askoren joerak ematen zion miña agertzean; belarritan oiuka ari zaigu bere azken gaitz ortan erakutsi digun jainkozaletasuna ere.

Bi gauza aipatuko ditut bakarrik: euskal eta Jainko zaletasuna.

Altxueta mendiko aize zorrotzak emana iduri zuen Euskalerriaren zorigaitza ikusteko begia. Aren begi argiak! Eskola-miña zuen aundiena. Aurrik gabeko etxea —hila, otza—, iduritzen zitzaion euskal literatura. Aurretan dago geroa; eta aurrak nahi zituen euskerarendako. Etzituen diruz egin gauzak; biotzaren deya dira bere orriak:

"Aterako da ahal dugularik;
Ahalko dugu nahi duzularik".

Sei urtez 65 zenbaki; lau bat milla orri, aldian. Euneka idazlari txiki eta millaka irakurle euskerari sortzea ez da lan makala. Gaur ezin ginezake esan aur gabeko etxe mutua dela euskal idazkaritza.

Bere eritasunean ikusi dugunok itzik gabe gelditzen ginen askotan, ain gaitz negargarria ikusita; bera zen orduan gure biotz txikien astintzale. Noizbait izan balin bazuen eriotza Jainkoari eskatzeko otoitzen bat, gaizki egin zuelako kezkan esango zuen belaxe: "ez nik nahi dutena, zuk nahi duzuna baizik". Etā Euskalerria zuen asmoan.

San Ferminetan joan zaigu, bere ezpainetako irritxo ajolagabea itzaltzen utzi nahi izan ez balu bezala. Bere ereintza aberatsaren uzta agertzen asi dela esaten duen ilabetean.

Itz gutxi eta egite ugari, ori da gizonaren neurria; gure arteko gizon aundi baten mendi gallurra.

SAGI

AGOZTUA

«Agosto» Gaztalan eta «Agorrilla» Euskalerriko leku askotan deitzen dan illabetiak, emen Lesaken, «Agoztua» du izena.

Pollit edo itsusi, garbi edo nahasi, beraikin gelditu beharko; ez ta bertze aukeramenik; herrian sartu eta edatua baitago. Axular xaharrak zion bezala: «Eziñak eztu legerik». Ezin bertzez, bortxaz, beharturik, borondatearen kontra, meta ziria bezala ez bai-dakioke herriari bere kaletran itz berri bat sartu.

«Agoztu» itzak errateko aundirik ez ukanik ere, ba-ditu uda sasobeak.

Egunak luze, gabak labur, eguzkia bero bete-betean, Ama Lurra erdi-miñez nigar, herri guziak ospatu izan dute izadiaren aunditasuna eguzkia gurtuz.

Irakurle geyenak ezagutuak dire San Juan Bezperako suak; elorri xuriakin egindako San Juan goizeko gurutzeak; Iturrietako ura edatia; eguzkia atera gabe, ahalik eta arinkiena, gorputzak intzian garbitzia; San Juan belarrak, eta bertze oitura asko.

Ah! Biño gure mende ta egunetan, eguzkiak eta urak bertze errekestarik ba-dute. Siñeste zaharrak alde batera uzten ditu yendeak eta berriak yantzitzen.

Yakin nahi ba-duzu, zoazi Ondarrabira edo Donostira; edo gure herrietako erreka bazterretara. Ikusiko duzu Ura ta Eguzkia, San Juan egunian ez bezala, nola gurtuaz diren. Biño urez eta eguzkiaz ez ta iñor ere oroitzen mantenu eta bizigai bezala.

Egia da orduan nere adiskide min batek erraten duena?: «Gure egunetako oitura ori, kukulutxa ta gornia nerabientzat bezela, da herrientzat ere». Egia ote? Eztut uste. Soberaxko iduri zait.

·ELIZAREN ITZA·

Eliz batzar nagusiari begira

Protestanteak dira bigarren Kristau salla. Martin Lutero jotzen da beren buruzagi. 1520 urtean autsi zuen Eromako Eliz Katolikoarekin, amildu zuen berarekin Alemaniko geyen zatia, baita Europako beste nazio frankori zabaldu oker-bidea. Geyen kutsututakoak Suiza, Holanda, Dinamarka, Suezia, Noruega eta Inglaterra, baño, Ortodoxoen tokik kendu ezkero zipriztiñak ukitu gabeko txokorik etzan gelditu Europan; garai artan mundu arkitu berrira jauzi baitziren europar geyenak, eraman zuten bakoitzak beren religio mota, ortaz, luterano eta kalbinistak, presbiteriano eta metodistak, ots, protestanteak topatuko dituzu Estadu Batuetan, naiz Indietan, naiz Afrikako beltzen artean.

Zertan datza gure eta oien arteko alde, edo diferentzia? Ez da errax itz laburrez galdera orri erantzutea, elkaren artean arrunt berexturik baitaude; jakiña, Liburu Sainduak dira, eken ustez, sinismen iturri bakarra eta bakoitzari Espirituak aditzera ematen dionez, iñongo erakustunik gabe aietan erakusten dena jaso bear da, ortik ainbeste iritzi ezberdin, alderdi edo secta.

Ala ere zaiñ eta sustrai bezela artu diteke oker oyen artean, Luteroren santutze, edo justifikazio gaiko erakutsia; jatorrizko pekatuak erabat desegin zuen gizona, usteldu, gaiztotu, gizonak ustez ongi egiten ditun lanak ere pekatu dira berez, Kristo bakarrik da santua, gizonen alde eman zuen bizia ta Jainkoaren asarrea, gizonekikoa, gozatu. Xristoren santutasunak estaltzen du gizonen gaitza, sendatu ez, garbitu ez, estali bakarrik. Gizonak uste bear du, Xristoren irabazi edo merituari esker, ez dakizkiola aintzat artuko Jainkoak bere gaiztakeriak, uste orrek (fede orrek dio berak) santutzen zindotzen du gizona ta zeruan sararaziko du.

Alde izugarriak, leze sakon —sakonak berexten gaituenak!! ¿nola zuzendu? ¿nola bateratu? urrengoan jarraipena.

Euskera eskoletara?

Erein gabe ez dago ezer biltzerik; ori edozein nekazarik badaki. Ez da, beste alde, lanik oberena lur iraultze eta ereitea. Ihitariak begien aurrean du bere lanaren saria: gari aberatsa. Azaroan ereitera ateratzen den langileak, aldiz, izotza goizetik eta, iluntzean eskuak utsik; zuen azi pixka lurrari emanik eta bilduko duenik ez jakin...

Aurrak ditut nik orai gogoan; eta euskalerriko eskolatxoak eldu dazkit burura. Izkuntzaren aldetik beintzat, aspaldi erein gabeko esku txarretan dabillen baratze negargarria dugu gure eskolen au. Aurrak dira edozein erriren lur austekoa; eta guk ereiteko biderik ez!

Egia da zer edo zer egiten asiak gerala. Ikastolak sortzen ari zaizkigu bai Donostian eta bai Iruñen. Pozgarria!! Iri aunditatik asi zitzaigun euskera galtzen; eta andik asten zaigu berritzen. Asko esan nahi du gauz onek.

Alare, euskera erri izkuntza da eta erritan bizi dena. Erri oietan galduz bezala euskalerria hilez joango da. Gure egitekorik beharrenetakoa dugu aurrera ateratzea. Eta edozeinek ikusten ahal du eskol bakar batzuk an-emenka sortuz ez dela gure zorigaitza erabat baztertzen; euskalerri osoan beren izkuntza eman behar zaie aurreri eskoletan. Erdara ematen zaien bezalaxe.

Euskaltzaindiak, ots, euskal akademiak, eskari au egin die Españako agintarieri. Aurrak bi izkuntzak eskoletan ikasteko erabakiarekin batean, eskol eta ikastetxe nagusitan ere Europan den izkuntzarik zaharrena sarturik ikus nahi lukela agertzera ematen die.

Gai ontan gure Diputazio agurgarriak asko ta asko egin lezakete. Danok batera egin behar ditugun gauzak dira; gure aurrekoen millaka urtez bildutako jakinduria eta izateko modua arriskuan bai dabiltza.

"Principe de Viana" batzordearen laguntzarekin Iruñen izan berria den "Synposium" delakoak, gauza asko eragutsi dizkigu. Batez ere au: nundik asitako gizon jakintsuak euskeraren gauzetan leporaño sartuak dabiltzen. Ipar Ameriketako eta Rusiako izenak agotan, gure gauzetaz itz egitean.

Bestalde berriz, Iruñen Ikastetxe Nagusi (Unibersidade) aipatu bat izanki, Barzelonako Ikastetxearen bidez egin behar izan dira lan auek. Euskalerri osoaren amets aundia bete zelakoan ginauden, gure Unibersidadea eskutara etortzean. Ikusiko geroak ez duen gure ustea usteletako jotzen; eta ametsa, ametsetan gelditzen...

Euskaltzaindiaren eskeak danon indarra ta bultzada behar ote luke? Galde-era bat da.

J. M. S.

Almandoz'ko erria



Bi urte Naparroako Diputazioak erabakirikan erriek apaintzera.

Lan bizkorra, bañan bearrezkoa. Errietan ez daitezke bizi, eta ziudadetan bai. Auxen da askoek esaten dutena. Eta zergatik ez ekarri errietara ziudadetako gauz on guziek? Bañan lenengo, garbitasuna. Etxe berrian zarrean baño obekiago bizitzen da, etaerri polit batean zikin dagon batean baño kontenago.

Baztanen ere bazagon premia. Orregatik, gutaz oroitu dira. Almandozko erria berexi dute asierako. Eleiza berria, bañan ez ain berriek dauzkan etxeek. Karrikak ariiz berritu dituzte.

Bañan zapata berriekin eta jantzi autsiarekin, ez dago oso ongi. Or ari dira etxeei ere arpegia garbitzen.

Balleko Ayuntamentuak jarri du sosa puska aundia; uste degu Diputazioaren laguntza ere ez dala ain zurre izanen.

Eguerritako apaindurikan geldituko dire etxe guziek. Lan onak bear dire asi eta bukatu

LEGE ZAHARRA

Lope de Isastik egindako Kondairan edo Istorian agertzen dan gertaera onek, erakusiko digu Nafarroa-ko Fueroak beste denboretan zer zirèn.

Boskarren Karlos Enperadoreak bazekien euskeraz pixka bat; bere kapellaua ta bere sendagille euskaldunak ziran-eta.

Bein, bide batean, mandazain napar batekin topatu zen. Eta Enperadoreak mandazaini galdetu zion euskeraz:

—Mandazaina, nondik zatoz?

—Nafarroatik, ihardetsi zion mandazainak.

—Nafarroan gari asko?, iharduki Enperadoreak.

—Bai, jauna, gari asko.

Ta Boskarren Karlos andiak bukatu zuen erranez "Nafarroan gari asko, gari asko; batere, batereez neretako".

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

·ERRIZ-ERRI·

BAZTAN

ELIZONDOKO BESTAK

Santioak iraganak dire eta iraun duten bortz egun oietan naiko ikusgarri, sonu ta yosteta izan ditugu. Yendea ibili da eta karriketan bozkarioa nabari zen.

Urtero bezala Santio egunean Neza Nagusi guziz ederra izan ginuen, bereartan Elizondoko kantariak aritu zirelarik. Meza ondoan oiturari yarraikiz erriko gazteek mutil-dantza xarmanta erakutsi zaukuten, gure Maurizio txistularia beti bezela soñu yotzale zelarik.

Ikusgarrien artean ginuen: Santio egunean aizkora apostua Astibia ta Arria buruz buru borrokatu zirelarik. Yoko untan leitzarra aisa nausitu zen. Aizkoraren ondotik, Leitza ta Erasun'go bi ahari bizkorrenak zanpaka aritu ziren eta azkenean besta hori bururatzeko Andoain'go txistulari famatuak soñualdi eder bat egin ziguten.

Santio biaramunean, goizean erreboteko partida eta arratsaldean eskuzkoa, Bergara ta Lajos nafartarrak Arriaran bi anaien kontra. Gipuzkoarrek irabazi 22-14.

Ikusgarri guzietarik eta dudarik gabe arrakasta gehiena izan duena, Elizondo, Irurite ta Ezpeletarren arteko yostetak izan dire. Azkenengo egunean (28,an) erreboteko plazan arizinak dire baztandarrak ezpeletarren kontra yosteta politak eginik, soka-tira dela, lasterketak direla ta bertze ikusgarri zenbaitzutan zeingehiagoka aritu direla. Merexi du aipatzea Ezpeletako klikak eginikako soñualdia, lehenik erriko karriketan barna eta gero erreboteko plazan arrabots ederra eginik bazter guziak iñarrosten zituztela. Atsalde goxo bat iragan ginuen eta bein eta berriz erranen dugu zenbat eta zenbat balio duen euskaldunen arteko elkartasunak. Gora Lapurdi eta Nafarroa!

Bestak elkartasun eta umore onean igaro dira eta gure goresmen bizienak bestaren antolatzaleeri.

Agorrilaren (Dagonilla) illabetean beren bestak ospatu dituzte: Bera, Ziga, Sunbilla, Aranaz, Etxalar, Zubieta, Donamaria, Oronoz, Aniz, Arraioz, Amaiur, Zugarramurdi, Lekarotz, Narbarte, ta Legasako erriek. Urtero bezala elizkizun ederrak, dantzaldiak ta yostetak izan dituzte. Oronozen pilota partida ederrak izan ditugu et Sunbillan eta Anizen aizkora yokoak. Aipatu ditugun bi erri oketan Latasa arizana da bera bakarrik bertze bien kontra eta sunbildar aizkolariak bi yoko oietan irabazi. Badirudi Latasa sasoin izigarrian dagola, indartzen ari dela bere ahalmenak gero ta goitiago doatzila.

Erri geienetan gazteek zikiro yateak eginak dituzte eta erran beharrik eztago umorea bazela eta gazte ta zahar guziak sasoin ederrean zabiltzela.

IZETA

SALDIAS

Agorrillaren 2'ean izandu zitzaigun Loprengo-bordako Anttoni. 24 urte Afrikan Españiak dituen lurralde aietan Misio lanetan ibillik. Lenik 16 urte pasatu zituen Fernando Poon, gero Santa Isabelen eta orain Batan. Au Rio Munin dago. Lau illabete atseden artzeko asmoetan da. Oso bearrezko izango zaio, bizi diran alderdi aietan bero gogorrak uda ta negu egiten baiditu.

BIDE ZABALA

Jaungoikoari esker arri botatzen asi zaizkigu. Erritik asiak ditugu. Erretxingurreko Etxeberriko sorapeño ekarri dute. Karkastilloko bi kamion dabiltz karretoan. Kamionak ekartzen dutena beste batzuek txikitzen dute. Arri xiatzalleak Urtas-aldean ari dira. Lenik 20 zentimetro botatzen dute eta gero gaiñetik 10 zentimetro arri xeeagoa botako dute.

Udazkenaldera akituko ote duten esperantzetan gera.

BELARRAK

Belar lanak aurreratzen ari dira. Egun gutxi gorabera geiezkoenak egiñen dira. Gariak denak sartuak. Orain ultziak egiteko zai. Ia patxada ederrean egiteko grazia izaten duten erritar maiteak.

Artoak eta banabarrak itxura polita daukate. Leku batzuetan artoak loratzera dijoaz. Denborak joan den illabete orretan lana egiteko eztu lagundu, soroentzat ezta gaizki egiten zuen euri ura. Bazter guzietan naiko bazka ateratzen da. Aurten ezta azindak ezin bazkaturik, Jaungoikoari esker.

Aurten gerezi asko zen, gutxitan bezala. Baño denbora txarra joan delakoz ezdira bear bezela aprobetxatu.

NAPARROAKO GAUZAK

Eugi'ko uarkak (presak) Iruñari ura emango diola, aspaldiko jolasa da. Orai aipatzen balin badugu, paperrak egilearen eskutan direla esateko da. Ehun eta amabi millonen lana. Gero esango dute ura gauza merkea dela...!

Morris izeneko lenb'ziko autoak laister ateratzekoak dira Iruñen. Urte bat baño len ehuneka aterako dituzte.

Eta autoekin, bideberriak. Noain'go bidea dugu Naparroan mobimendurik aundienekoa. Autopista delako bide zabala egiteko lurrak erosten dabiltza gure agintariak. Beste irurogei millon...

Militarrak utzi dute beren bizitegi eta inguruko arrisua. Ayuntamentuak lili-baratz, apaingarri eta erakusketako etxeak egiteko asmoa du. Txoko politen bat prestatuko dute zoko ilun artan.

Estellan izan berri dira lengo mendetako gaien ikasketak. Urtero, aste bateko lanak prestatzen dituzte eta mundu guzian aipatuak dira.

Baztan'go Ayuntamentua bide lanetan sartu da. Bearzun eta Orabide eskutan dituen lenbiziko lanak; amabost millonen kontua.

Gallipienzo berri bat egingo ote dute? Diputazioak asmoa baluke. Neke aundiko bizia da orai an egiten dutena.

Eta diru kontuan aundiena: Burullaren azken aldera astekoak omen ditu Diputazioak Gobernuarekin dituen artu-emanen itzaldiak. Ori da dena.

Se adjudica la subasta del embalse de Eugui que abastecerá de agua a Pamplona. La presa costára 172 millones de pesetas.

La fábrica Morris va a empezar a fabricar sus primeros automóviles para llegar dentro del año a una fabricación de 100 coches diarios.

Se gestionan las ocupaciones de terrenos para construir una autopista entre Pamplona y Noain que es la carretera de mayor tráfico de Navarra. Importe superior a 60 millones de pesetas.

El Ejército entrega a la ciudad de Pamplona la histórica Ciudadela donde se construirán museos y parques.

En Estella se celebran las importantes Semanas Medievales que son una manifestación de cultura de importancia universal.

El Ayuntamiento de Baztán ha preparado los proyectos de caminos a los barrios de Bearzun y Orabidea por un importe aproximado a los 15 millones de pesetas.

Parece ser que la Diputación prepara un proyecto para construir un nuevo poblado en Gallipienzo donde las condiciones de vida son actualmente muy duras.

La Excma. Diputación Foral anuncia que a fines de septiembre se iniciarán las conversaciones para el nuevo Convenio con el Estado.

ERRONKARI

Erronkari-ko zazpi errietako neska-mutillak ango soiñeko ederrez jantziak, denak bildu eta elkarturik, jai egun batean. Badakizue, gazteok: elkartasunak indarra sortzen du.

Erronkari zazpirak bat

(Erronkari-ko zazpi hirier, bihotz guziareki).

Zazpi hiri
—mendi, saldo, lerdoi—
Erronkari.

Zrei anaxi;
mintzoz, begitartez,
uskal hazi.

Alkar betik!
Xinkoak egin ziona,
zeren autsi?

* * *

Aurridiak xoan
—eskietarik artruk—
karriketan.

Zeurietan,
zazpi urzo hegalez
saldo batan.

Txek bortian:
ardia barriatruk
otsoak xan.

* * *

Eder, andi
kainbat egin bear,
Erronkari!

Yi, goart-adi
zazpi anaxe zreila;
kortik asi.

Zomat argi!
Zazpirak alkar artio,
ez indarrik.

M. GARDE

Gerla eta bakea

Konzilioak yarri ditu gure eskuetan bandera berriak. Beti gureak izandu ziren, kristabenak erran nahi nuke; biño ez behar bezela altxatuak edo bazterrean gordeak, eskuetsayak ebatsi zituzten eta bereak balira bezela astindu. Orietako bat bake-bandera da, betikotz gurea izan behar duena.

Konzilioko gurasoek aurrez-aurre ekin zioten «gerla-bake» aferari. Beren erabakiak ahal bezain sarkorrak izan ziren, nahi ainbat ez sarturik ere.

Atomika gerla eta gerla mortala, etorriz eta izatez bertzeren kontrako gerla eta ez bere burua beiratzekoa, errotik debekatu zituzten, gurutze ta erligioaren izenean egiñak izan arren.

«Ez sekulan gerlarik, ez sekulan gerlarik; anayak ba-zerate, utzi zuen eskuetatik armak eror diten», zion Paulo VI garrenak O.N.U.'ko batzarrean egin mintzaldian. Eta Konzilioko gurasoek: «Era guzitako gerla debekatua izanen dan denbora bat prestatzen, gaitezen leia, axola eta arreta».

Egia da; eztu ahalik Konzilioak gerla mota guzia xeatzeko eta garaitzeko. Biño lotu eta zokoratu du, ahal duelarik bein betiko garbitzeko.

Onek erran nahi du kristauok zalantzarik gabeko bake utsa eta bakarra billatu behar degula. Yainkoaren eta gizadiaren kontrako bekatua da gerla. Eta gerla guzia; berexkuntzarik gabe; olakoa ta alakoa; bonba zikin edo garbi; elburu onekin edo arekin. Gerla ezta bide garbi ta zuzena deustarako. Zikiñegia, nahi den lekura, santuena izanik ere, zikindu gabe eltzeko.

LESAKARRA

Nekazaritzako lan-gaiak

Itz asko egiten dugu nekazaritzaz. Alde batetik, ezin dirala lanak egin, baso-etxetarako langilleak gutxitzen ari diralakoz egunetik egunera. Bestetik, langille gutxitze ori ezin dezakelakoz bete baso-etxe bakoitxak tresnagintzarekin, txanpon aunitz bear diralako.

Gaurko egunetan, uts ori baso-etxetan (nekazaritzan esan nai degu) bete ote leiken uste dutenak ba dira, bat baño geiago. Orain, ez noski bakarka, bai ordea elkartuta. Bear dana da ikusi nola, eta ortarako begiratu ongi aurretik, noiz ta zer tankeran jokatu bear dan.

Nai ta naiez, era-berritu bear da lan egiteko bidea. Eta au, indarkintza etxera ekarriaz nolabait. Ba dira asko uste dutenak traktorekin ez dala ezer aurreratzen; beste batzuek eragille (motor) bat aski dala lan guztietarako. Gure iritziz, bien erdian dago nekazarien lan arintzea.

Eragille bat naikoa ez dala ikusi dute askok beren etxetan. Tramankulu aldatze orrek bai ditu bere lanak, eta askotan ez txikiak, bi lagun bear diralako. Egun askotan, gutxiena bi tramankulu aldatzea etorriko zaio, eta orrek eskatzen du bere denbora, beste lan baterako bear lukena. Gañera, erainki batek, lan baterako indar geiegi dauka ta alperrik dabill, beste batzuetan gutxiegi, eziñez.

¿Nola erabaki korapillo au?

Erosiaz bear diran indarkintzak. Belarra mozteko, eta lurra garbi edukitzeko udako lanetan, tramankuluak izan dezaten beren erainkia. Gero lan gogorretako traktore on bat. Lana egiteko indarkintza onekin aski balira, nagusiaren iritziz, ogeita bost zaldi, txanpon batzuek geiagokin erosi ogeita amar zaldi. Traktorea, beti ez ba da ere geienean, indarka betean dijoa edo ari da lanean, eta ez ba dauka lanak eskatzen dion baño indar geiago, erainki ori bereala ondatzen da. Aisa joan bear du lanean; bestelaz, erostekoan atera nai etzitun txanponak joango zaizkio beste bide batetik. Traktorea bakarrik ez da aski; bear dira golde on bat, "rotabator" deitzen dan tresna bikaiñ bat eta gurdi bat.

Ba dakigu, gauz ok denak erosteko txanpon pilla aundia bear dala. Laguntzak ba dira, esaten da gaur erosketa oiek egiteko. Ala ere, guk ez giñioke iñori ere bakarka sartzeko baimena emango. Traktore batek ordu askotan lana egin bear du bere buruaren saria ordaintzeko, eta ori nekazari etxe bateko lurretan ez dago egiterik, lur talde aundiak izan arren. ¿Nola bear du jokatu ba? Elkartuaz lau edo sei nekazari, auzoak ba dira obe, eta bereala jarri indarkitza oien billa. Bai baña aurretik galdera egiñaz, tramankulo oiekin urteak daramazkitenari lanean; zer eragozpenak izandu dituzten aurrenetik, eta noia zuzendu daizkioten idarkintzak egin zituzten etxe edo ola oiek, era ontan zein diran obeki berritu dituztenak, ba gaurko tramankuluak ez bai dira orain ogei urte ziran bezalakoak. Askoz obeki egiñak, ikasi dutelakoz lur lanetan ikusiaz beren uts ta akatsak. Era ontan aisa erosi ditezke lankiak eta zuen etxetarako langille utsa bete ere lan askotarako beintzat.

Beste garrantzi aundiko gauz bat degu, indarkintz ok bear dutela ongi zainduak izan. Nekazariari iduri zaio, denbora galtzea dala tresnak garbitu, oliotu ta uriñak jarri aginduta dagon eran, iltze buruak ikusi maizka. lasatu zaizkion ta abar; ari dan lan orri. ¿A zer errua...! Ortantxe dago bere irabazirik aundiena, ala bai datorkio tresnan iraupena ta lana geiago ta aisago egitea.

Amaitzeko: Indarkintz edo erainki ta tramankulu ok bear dute begiratzalle ta ongi eramango ditun gizon bat. Bestelaz denbora baño lenago ondatuko ditu danak. Ortarako bear du gertua egon, ondo ikasia nai degu esan. Tresnak maite ditun gizon batek, ongi zainduko ditu; Olio ona eman eta bear danean aldatuaz, uriñak bezala; lur lanean ari dan indarkintzak, berebillik onenak baño zaintze obea eskatzen bai du, leen esan degun bezala, geienean indarka osoan erabiltzen dalako, batezere traktorea, eta beti auts ta loi tartean sartua.

JOSEBA IMANOL

ARGITU BEHARREZ

Azken lumeroaren lenengo orrialdean argitaratu genuen Iruñeko. Lege Zaharren Oroikarriaren argazkia, edo fotoa, Raul Lesmes Ezquerro jaunarena da. Jaun onen izen-deiturak jartzea ahaztu zitzaizkigun, eta argi nai dugu erran foto orrek bere jabea duenik. Aurtengo Sanpermiñetan Iruñeko "Diario de Navarra" egunerokoak antolatutako Fotoen Sariketako Lenengo Saria izan zan.

Gure barkamenduak utsegiñarengatik eta bide batez gure zorionak foto eder orrengatik agertzen diozkagu bere jabea den Raul Lesmes Ezquerro jaunari.

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

PEDRO DE AXULAR (VI)

Koleraz eta lizunkeriaz Axularr ek diona

Oraiko aldian emanen ditugun zatiekin bururatzen da Axularren aipamen luze hau, urdazubiar izkiriatzaille haundiak merezia, dudarik gabe. Huna hemen gorrotoaz dakarzkien zenbait gogoeta zorrotz.

"Haserretzea eztago ez hanbat egitekoaren balioan, nola presu-"naren kondizionoan. Batak antsiarik eztuenaz, bertzea jauzten "eta enkoniatzen da...

"Halatan erraiten du Platonek; presuna haserrekorrak eta "kolérak adimendutsu direla, eta anitz ikasteko on; ez ordea "herrien gobernatzeko eta ez eskola edukitzeko ere. Zeren har-"tarakotzat pazientzia behar da, sosegu behar da eta anitze-"tan ere, ikusia ez ikusi, eta aditua ere ez aditu iduri, egin "bear da...

"Livio philosophoak bere diszipulu Theodosio Emperado-"reari erraiten zion: Badakit, Emperadore handia, zenbait al-"diz haserretuko eta koléran jarriko zarela. Bada ordukotzat, "eman nahi deratzut konseillu on bat.

"Hala zerenean, ez kexa, ez leia, ez bere hala abia, iguriki "apur bat; ez (albaitzeneza), deus egin, ez erran eta ez aitzina, "A-B-C eta hei darraizten bertze letrak erran arteiño...

"Kofesa ahal zaiteke, gorputz saindua errezibi, barur, ora-"zinotan egon, eta duzun guztia probei eman; baiña hek gus-"tiak etzaizkitzu deus baliatuko, baldin barrenean nehori he-"rrarik, hegigoarik, gorrotorik edo borondate gaixtorik badia-"dukozu.

"Eztiteke zauria senda elorria barrenean deino; eztiteke be-"katua barka borondate gaiztoak diraueino. —"Unaraiño Axu-"lar"—. Dakusagun orai XXXIV garren kapituloan lizunke-"riaz dakarrena.

"Nik uste dut ezen, emaztetara emana den gizona, hala "deino, ezin datekeyela ongi, eta guztiz ere, baldin ezkondua "ba da. Ezkondu gabe baten erortzea, behar ezten emazte ba-"tekin segitzea, ezta ongi, bekatu da.

"Baiña aldez, ezta hain miresteko, munduko arauaz. Or-"dea ezkondu batek, emazte ederra eta prestua duen batek, "hura utzirik, har dezala itsusi bat, begi-zeiar bat, ezkel bat, "beteriatsu bat, finean ezteus bat, eta harekin josia bezala "egon dadilla: erran behar da adimendua itsutu zaikala, me-"moria nahasi zaikala eta borondatea behar ezten aldera itzu-"li zaikala. Halakoaren etxean ezta gerlarik, liskarrik eta bi-"zitze gaixtorik baizen.

"Zeren emazte ezkondua eztu deusek ere hala giarran uki-"tzen, krozkan erauzten eta ez bere tentutik eta patzientziatik "ateratzen, nola bere senarra bertzerekin diobilkola jakiteak...

"...Zeren amorantea eta guztiz amorante miaua eta eskalea "huntz adarra bezala da. Huntzak inguratzen du zuhaitza, be-"sarkatzen du, edoskitzen du eta azkenean ihartzen du. Hala "bada amoranteak bipiltzen du, larrutzen du, ariman eta gor-"putzean ihartzen du.

"Urrikalkizun da halakoa eta bai amorantea-ganikako hau-"rra ere, Zeren nola ezpaita legitimo, nola baita bastart, bort, "ezkontzaz kanpoan egiña, ezin mintza diteke libreki jendar-"tean, ezin bururik ailtxa dezake; berehala lehenbiziko lis-"karrean p. seme deitzen dute. Seme bastartak berak eztu ho-"benik, baiña bere aitarengatik, ekarri behar du burua be-"hera.

Hok bezalako kapitulo bixiak dastatuko ditu (alferkeriaz, limosna egiteaz, arneguaz, lizunkeriaz eta gorrotoaz), gizonki, eta batzutan gordinki, mintzo den GVERO liburu famatua irakurtzera deliberatzen denak.

Gizon handi hunek Urdazubiko Axularrea bere sortetxean, izkiribu-arri bat merezi luke; Sarako Elizan, Bonaparte Prinzeak parazi zionaren gisakoa.

A. APAT-ETXEBARNE

KIROLAK



Buruilako lendabiziko astean Donostian euskal besta guziz ederrak egin gogo dituzte. Bereartan izanen dire, korrikalariak, aizkolariak, arrigoratzaleak, sokatirariak eta bertze.

Badakigu aizkolariek bidenazka ari beharrak direla eta zeingeiagoketa ortarako iru bikotek izenak eman dituztela. Emen bikoteak:

Mikel Berekoetxea gorritiarra eta Ataungo Martzelino Zeberio.

Leitzako Astibia bi anaiak.

Sunbillako Erramun Latasa eta Azpeitiko Joxe Mari Orbegozo "Arriya".

Sariak:

Irabaztaleek:

100.000 pezta, edergailoa eta Txapelak.

Bigarrenak:

70.000 pezta, eta edergailoa.

Irugarrenak:

40.000 pezta, eta edergailoa.

EUSKERAREN ALDEKO SAILLA'REN BERRIAK

Aurten bukatuko dire orain amar urtean asitako Eskola adiñetako muttiko eta neskattikoen arteko euskerazko esamiñak. Pasatu den Garagarrillan Bidasoko Beran euskal esamiñak egin ziren, eta Nafar euskal errietan ezta Saldiasko erria besterik ikustatu gabe gelditzen; euskaldun errietan euskal dunetakoa alegia. Datorren udazkenean Saldiasera, Jaungoikoak naibadu, joanen gera.

Igazko esamiñetan sarituak izan ziren Donezteben inguru errietako Eskoletako euskaldun neska-mutiltxoek, eldu den udazkenean beren irabazitako premioak, edo sariak, artuko dituzte, udaberrian, Igantzin euskeraz mintzatzen dakiten aurrek jaso zituzten bezelaxe.

Udazkenean ona emen sariak artuko dituzten neskatto-muttikoen errietako izenak: Beintza, Labaien, Urroz, Donamari, Oitz, Gaztelu, Ituren, Elgorriaga eta Donezteb e. Orotara 450 sari banakatuko dira. Programak egiten diranean berri xeatuagoak emango dira.

MOZKORRAK:

—Zer ematen diete gizon oieri ainbeste laster egiteko?

—"Kopa" bat.

—Bat bakarrik? Pinta baño gutxiorengatik ez dut nik pausurik ematen.

KALPARRA

Kalparra moztu diote gizon zahar bati eta kontua eskatu du.

—Bost duro.

—Nola! Ori ezin da. Lau il-punta ez dauzkat eta...

—...eta billatzen izan duten lana!

Bikote bakotxarentzat izendatua dagon lana:

Bortz onbor 54 ontzako, bortz 60 ontzako ta bortz 72 ontzako. 15 egur bikote bakotxarentzat.

Soka-tirarako bi ekipa naparrek eman omen dituzte izenak, Leitzarrek eta Baztandarrek Gipuzkoarrek ere bai omen dituzte guttienetik lau edo bortz ekipa eta Bizkaitik ere bai omen datoz. Irabaztunek 10.000 pezta bereganatuko dituzte eta bertzeek ere zerbait izanen dute. Urrengoan erranen dut Donostian zer gertatu den eta gure napartarrek zer egin duten.

LATASAREN AZKEN AUPADAK

Latasak Euskalerriko Edozein aizkolariri ordubetetik gorako lanean, erdi aukeran, desafioz, deitzen du.

Beste aupada bat ere arestian bota du: Zeñek moztu lenengoz zortzina 80 ontzako egur. Apustu ontan lan aukeraren baldintzak Latasak berak jarriko ditu.

Euskalerriko aizkolaririk Latasak botatako aupada auek erantzuteko prest ateratzen bada, ...denborak erranen du.

Donostiko Anoetako zelaian Euskalerriko Aizkolarien Irugarren txapelketa irabazteko sei aizkolari agertu ziran. Argazki edo foto ontan Berekoetxea, ezker aldean, eta Polipaso, eskuin aldean, ikusten dira. Argi ezbada ere beste lauak ere egur-moztu lanari lotuak agertzen dira.

LEGE ZAHARREN

Donostin agertzen da "EGAN" izeneko aldizkari dotore ta txalogarri bat. Iruñen, gure Naparroko Aldundiaren jauregi aurrean dagon Lege Zaharren oroigarriaz idatzi digute bere ortan. Pozez irakurri dut sailtxo ori.

Baño ez nago osotora berarekin, edo oroigarriaren euskal itzulerarekin. Iberikoen izkuntzan idatzia dago, agi denean, alde batetik, eta euskeraz bestetik. Eta idazleak dio: "euskeraz agertzen dena (iberiozkoa) berbera delakoan artzen dugu". "Adiskide nafar batek, ordea, aldatu digu paperera".

Nik uste ongi aldatua izango dela. Baño irakurgaia euskeraz eman baño len esaten duenak arritzen nau: "Euskeraz auxe adierazi nai duela dirudi". Euskeraz idatzia ¿ez al dago, ba, naiko argi irakurtzeko? Edo idazle onek euskeraratu ote du? Ez dut uste. Oroigarrian agertzen den bezala emango zigun, nere ustez.

Nola nai den; onatx ematen digun euskerazko itzulera:

"Gu euskaldunok beste jaun eztegu Jaungoikoa baizik. Atzeroari ostatua ematen degu onirizero, baño eztegu nai aien uztarria jasan: daitu ezazute gure semeak".

Onen atzetik idazle berak esaten digu: "Idazkera iberikoa, ordea, ez da orain oroikarri ori egin zenean bezala irakurtzen; oraingo ustez, gañera, orain, ongi irakurtzen da, lehen gaizki irakurtzen zena, Gomez Moreno jaunari eskerrak". Ta beste oar batzuen ondorean iberikeraz onelaxe ematen digu:

"Ciu euscalduncuco biestiei boaun etetieciu boauncicuibekua biaitelco atiteercuari ostiatiua ematien taeciu cuniriteercu bianicu etetieciu nai aien utetiarria boatean ataitiu ecuacuutie ontan ciure semeaco".

Irakurgai au euskeraz ezarri zuenak, iberitarren izkuntzako idazkera ongi jakingo zun naski. Nik berriz, aitortzen dut, eztut ezagutzen. Ta ordun ez nezake esan irakurgai ori izkuntza artatik ongi artua dagon; ezta ere euskal itzulera ongi egiña, edo ez.

Baño itzen bat edo beste adikorragoak bear giñuzkela gure gaurko euskeran, bai. Baita ere itz bat gelditu zaiola euskeratu gabe, edo bestenaz oroigarritik artu duanari gelditu zaio artu gabe. "Ontao" itza ezta ageri euskeraz.

Argatik barkatu zaidazute irakurgai ortaz nere iritzia emanez itzen batzuk aldatu-ta, gauza bera argiago geldituko dela ba-deritzait.

"Atzeroari" itzaren ordez "Atzerrikuari" jarriko nuke. Baño gogoratzen zait "Atzerrikuai" ez ote den izango iberikoz? Ta ala balitz, urrengo ematen **degu** (nere ustez gazki itzulirik dagona") "ematen diegu" bear luke euskeraz; eta atzerrikuari" ba-da, "ematen diogo" bear luke.

"Ostatua ematen degu **onirizero**", dakar. **Onirizte** itzak, **maitetasun, biotz- on** esan nai du, ortik **onirixi**, ezaguna. Gure oroigarri orren euskera-itzultzaleak sortu du, or dakarren **onirizero** itza; biotz-onez, gogoonez "**artzen degu**" esateko. Onelako itzetan Naparroan "**gi**" ta "**ki**" atzizkia erabiltzen dugu. Ta adikorragoa litzakela deritzait **onirizki** edo **onirixki** itza, an dakarrena baño.

Beste itz ez ezagun bat "**daitu**" or dakarren ori da. ¿Zer esan nai ote du? **deitu?** Baño urrengo itzekin ez dator ongi. **Aitu** edo **aditu** izango da? Ba-liteke; baño ordun zuzendu bear litzeke.

Euskeraratu gabe gelditu zaion "**ontao**" itza, **ontan** itzuli genezake naski.

Beste aldaketarik ez egitekotan, onelaxe geldituko litzaiguke:

"Gu euskaldunok beste jaun eztegu, Jaungoikoa baizik. Atzerrikuari ostatua ematen diogu onirizki; baño eztegu nai aien uztarria jasan: aditu ezazute gure semeak?

Orrela ote da? Nik uste ezetz. Lenbiziko errenkan eta azkenekoan itz bat baño geiago oker daudela iruditzen zait. Baño Naparroan eta bere ikastetxe Nagusi edo Universidadean izango dira naski izkuntzlari jakintsu, antziñeko Iberikoz naiko berri dakitenak.

Auen bidez laxter jakin diteke irakurgai ori ongi emana dagon; gaurko idazkeraz nola bear lukeneta...

Aurten dugu gure Lege Zahar oien eunkia edo urtaburua 1686-garren urtean egin ziran, **Espasa**'n ikusi dutenaz. Argatik ongi letorke berritzea, ta euskeraz bear luken eran ezartzea. Orrela gaurko ta biarko naparrak, jakin dezaten gure gurasoen legezko erabakia ta ondoreko guzioi emandako agindua.

Gaurkoz orixe besterik ez.

Intza'r DAMASO AN

Chile'tik, 1966-Garagarrillaren 24'ean

OARRAK

(De la Versión Ibérica del monumento de los Fueros)

1. "Ciu euscalduncuco **biestiei**... ¿Es "**beste**" o cabe sea **bestcik?**
2. **"Boaun etetieciu boancicuibecua... ¿Es "jaun eztegu (o) eztugu Jaungoikoa... O cabe trascribir: jaun (ik) eztegu (o) eztugu Jainko bera.**
3. **"atiteercuari ostiatiua ematien taeciu cuniriteercu... ¿Es "ostatua ematen degu onirizero? O cabe que diga; Atzerrikuari (o) atzerrikuai ostatua ematen diogu (o) diegu onirizki?**
4. **"bianicu etetieciu nai aien utetiarria boatean... "baño eztegu nai aien uztarria jasan" ¿Está bien? O cabe que diga: "baño eztugu nai aien uztarria gañean (o) joatean?**
5. **"ataitiu ecuacuutie ontan ciure semeaco". Es "daitu", aditu, aitu ezazute gure semeak? O cabe que diga: Ate (o) atari au erzi-zazute gure semeak? O más completo: ate (o) atari au erzi-zazute ontan gure semeak?**

BOLETIN DE INSCRIPCION

Don .....

con domicilio en la localidad de .....

Calle ..... N.º .....

desea recibir a domicilio y gratuitamente el Suplemento «PRINCIPE DE VIANA».

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

GRAFICAS NAVARRAS, S.A. (GRAFINASA) - M. DE FALLA, 3 - PAMPLONA - D.L. NA. 319-66